



OFIZIALTASUNA

INPOSAKETARIK EZ!

EUSKAL PILOTA SELEKZIOAREN ALDEKO MANIFESTUA

Egun on eta eskerrik asko guztioi hona etortzeagatik. Ondo etorriak zarete guztiok.

Gaur hemen elkartu garenok eta geure izenean, honakoa adierazi nahi dugu:

1. Gaur egun, euskal kirolariok ezin dugu NEPFak (Nazioarteko Euskal Pilota Federazioak) antolatzen dituen nazioarteko txapelketa ofizialetan parte hartu Euskal Herriko selekzioarekin. Lehiatzeko aukera bakarra Espainia, Frantzia edo onartuta dagoen beste selekzio baten izenean egitea da, tamalez Biarritzen laster ikusiko dugun modura. Gure herrian, gurea dugun eta gure izena daraman kirolean hau gertatzea, lotsagarria eta penagarria dela deritzogu.
2. Guk, euskal pilotariak garenez, Euskal Herriko koloreekin eta gure ereserkiaren doinupean lehiatzea nahi dugu. Beraz, Euskal Herriko selekzioak bere izena daraman kirolean nazioarteko txapelketak jokatzeko izan beharko lukeen eskubidean oinarrituta, euskal selekzioaren ofizialtasuna aldarrikatzen dugu, eta hori lortzeko denok batu behar ditugu indarrak.

Ondorioz, Euskal Herriko **instituzio** eta **eragileei** honako eskaera hauek egiten dizkiegu:

1. **Munduko Pilota Batzarrari** eta **Euskal Pilota Federazioei** eskatzen diegu jarrai dezatela egoera honi irtenbide bat aurkitzeko lanean, eta har ditzatela helburua lortzeko bidean, hartu behar diren erabakiak; besteak beste, **Nazioarteko Euskal Pilota Federazioan** euskal pilota selekzioa ofizial izateko eskaera berriz egitea.
2. Euskal Herriko **instituzioei**, jarrai dezatela beraien esku dauden tresna juridiko, politiko eta pertsonalak helburu honetara bideratzen, euskal pilota selekzioak nazioartean ofizialtasuna lortzeko behar duen laguntza eskaintzeko.
3. Kontuan izanik, nazioartean ofizialtasuna lortzeko arazoa juridikoa baino gehiago politikoa dela, dei egiten diegu Euskal Herriko **alderdi politikoei**, eta batik bat aldarrikapenarekin bat egiten dutenei, euskal gizartearen gehiengo handi baten ametsa errealitate bihurtzeko urratsak ematen jarrai dezatela.
4. Azkenik, **euskal pilota munduari**, euskal pilota selekzioaren ofizialtasuna lortu ahal izateko beharrezkoa den babesa eskaintzea eskatzen diogu.

Durango, Euskal Herria, 2022ko **urriaren 12a**

Euskal pilota selekzioa kolektiboa.

Mundiala BAI, Euskal Herria ere BAI!

Inposaketarik EZ!, OFIZIALTASUNA





OFIZIALTASUNA

INPOSAKETARIK EZ!

Gaur Durangon izan diren hizlariak:

- Endika Barrenetxea. Erremontista.
- Laura Saez. Gomazko Paletako pilotaria.
- Ibai Zabala. Eskuzko pilotaria.
- Iera Agirre. Eskuzko pilotaria.

Pankartan:

- Itziar Lete. Gipuzkoako Euskal Pilota Federakuntzako Lehendakaria.
- Enaitz Olaeta. Federakuntza Lehendakaria.
- Iker Gereta. Arabako Euskal Pilota Federakuntza Lehendakaria.
- Gotzon Embil. Euskadiko Euskal Pilota Federakuntzako Lehendakaria.
- Patxi Jauregi. Euskadiko Euskal Pilota Federakuntzako Lehendakari ohia.
- Kiko Caballero. Euskadiko Euskal Pilota Federakuntzako Lehendakari ohia.
- Jean Michel Garayar. Iparraldeko Bizkaiko Pilota Batzordeko Lehendakaria.
- Maite Ruiz de Larramendi. Eskuzko pilotaria.
- Martin Ibarra. Euskal Pilota Konfederazioko (EHPK) lehendakari ohia.
- Beñat Lizaso. Pilota egokituko pilotaria.
- Manuel Quesada. Pilota egokituko pilotaria.
- Nahia Ouro. Bizkaiko Euskal Pilota Federazioko zuzendaritzako kidea.
- Itziar Lopetegi. Gipuzkoako Euskal Pilota Federazioko zuzendaritzako kidea.
- Naroa Agirre. Eskuzko Pilotaria.